



3 HEZKUNTZA

Landaberriko haurrek jangela berria estreinatuko dute

Oraindik barruko lanak amaitu ez dituzten arren, Landaberri Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, Pablo Garaikoetxeak ikasturte berri honetan berrikuntza bat izango du, jangela. Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntza-komunitatearen elkarlanari esker, aurreko legealdian gauzatutako proiektua izan da eta honi esker, ikasturte berri honetatik aurrera, haurrek ez dute ikastetxea utzi beharko jatorduak egiteko.

4 GIZARTEA

Emakumeen Zentroan ikasturte berria

Zumba, pilates, ofimatika edo Skype dira aurten herriko beste guneekin batera Emakumeen zentroak eskaintzen dituen ikastaroak. Baina ez dira tailer eta ekintza bakarrik, eskaintza zabala aurkezten baitu zentroak udazken honetarako. Hauetaz gain, ekintza bereziak ere izango dira, emakume migranteen II. topaketa edo Beldur barik II. lehiaketa. Aste honetan, asteazkenetik ostiralera, matrikula berretsi behar dute herritarrek.



Biyak Bat elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Nagusien omenaldiko egitaraua aurkeztu zen asteazkenean Biyak Bat elkarteko egoitzan. Udal ordezkariak eta elkarteko kideak urriko lehen astean egingo dituzten ekintzak eta berrikuntzak aurkeztu zituzten.

Urriaren 1ean hasi eta aste betez herriko pertsona adinduei zuzendutako Nagusien omenaldia ospatuko da Lasarte-Orian.

Biyak Bat elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin batera antolatzen duen asteko egitaraua eman zen ezagutzera lehengo astean. Jesus Zaballós alkateak, Exiquio Perez Biyak Bat elkarteko presidentea, Adela Manso elkarteko zuzendaritzako kideak, Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak eta Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako arduradunak eman zuten honen berri.

Jesus Zaballós alkateak gogoratu zuenez, "urte asko dira elkarlanean ekintza hau antolatzen duguna. Urtero egitaraua hobetzen eta partehartzea sustatzen saiatzen gara".

Alkateak azpimarratu moduan, "egitaraua zabala da eta interesgarria da herritar adindu guztientzat, ez baitago elkarteko kideei bakarrik zuzendua".

Egitaraua

Adela Manso Biyak Bat elkarteko zuzendaritzako kideak

Aste bete nagusien ohorez

Urriko lehen astean ekintza ugari antolatu dira



Udal ordezkariak eta Biyak Bat elkarteko kideak nagusien omenaldi astearen aurkezpenean.

astea osatzen lagundu dutenei eskerrak eman eta egitarau zabal eta anitza aurkeztu zuten.

Urriaren 1ean arratsaldeko 16:00etan hasiko dira ospakizunak Biyak Bat elkartean. Mugimendu jokoak, lehiaketak, antzerkia, dantzaldia, ibilbide neurtua, Biyak Bat elkarteko eta Nagusilan/Xistral abesbatzen kontzertua, gimnastika, lerroko dantzak eta areto dantza taldeen erakustaldiak, bazkaria... denetarik izango da gure herriko nagusiei ohore egiteko.

Urriaren 8an, elkartearen 37. urteurrena ospatu eta asteari amaiera emateko, urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteei oroigarri banaketa egingo zaie.

Berrikuntzak

Hau guztiaz gain, aurtengo Nagusien omenaldiak badu berrikuntzarik. Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuen arloko arduradunak azaldu zituen.

Herriko adinduek ibilbide osasungarria egiteko aukera izango dute urriaren 2an.

Okendo plazatik hasi eta Biyak Bat elkarteko egoitzan amaituko da. "Ongi Ibili" ibilbide osasungarrietan parte hartzen duten pertsonari esker ona ematekoak ginen eta ekintza honen bitartez egingo dugu".

Bestalde, belaunaldien arteko ipuin kontalari saioa izango da elkartean urriaren 5ean, astelehena, eta haurrei egongo da zuzendua.

"Gaur egungo haurrek haien aitonen garaiko gauzak ezagutu ahaliko dituzte honetan. Oporretara joaten ziren edo ez, zein lan egiten zituzten, litzarrekeririk jaten zuten edo ez... haurrek ezer gutxi dakite haien aitonen haurtzaroari buruz eta era honetara, belaunaldien transmisioa egingo da".

Era berean, "herriko merkataritza sustatu asmoz, ibilaldi neurtuko sariak aldatu ditugu eta herriko dendetan gastatzeko bonoak izango dira. Lehen

hiru bikote sailkatuek eskuratu ahaliko dituzte eta bikote partehartzaile guztien artean ere 15 bono bikoitz zozketatuko dira. Aterpea elkartearen laguntzaz egingo dugu hau," adierazi zuten.

Izena emateak

Era honetara, Biyak Bat elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak herritarrek eta batez ere pertsona nagusiak antolatu diren ekintzetan parte hartze-ara gonbidatzen dituzte.

Hala ere, hainbat ekintzatan izena eman behar dela azpimarratu zuten agerraldian, hala nola, ibilbide neurtuan edo toka, igela, pote, bingo eta dantza lehiaketetan.

Nagusien omenaldiko bazkaria dastatzeko ere elkarteko egoitzan inskribatu beharko dira 1949. urtean edo aurreko urteetan jaiotako pertsonak.

Izen emate epe guztiak gaur, astelehena irekiko dira eta bulego ordutegian egin beharko dira astean zehar, 10:30etik 12:30era.

aeK euskara praktikoa



Eskolak



Mintza praktika



Barnetegiak



On-line



Autoikaskuntza



Normalizazio planak



Titulu homologatuak

Eman izena

30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan

MUNTERI AEK EUSKALTEGIA

Geltoki kalea 17 behea
20160 Lasarte-Oria
943 37 28 63

100 orduko klaseak, iraila
Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA)
Euskalduntzeko maila guztiak
Euskara agiriak

lasarte@aeK.eus
www.munteri.blogspot.com.es

HEZKUNTZA

Hasi da ikasturtea Andre Joakina enean

30.000 euroko inbertsioa egin du udalak haurreskolan

Herriko haurreskolan 0- 2 urte arteko 58 haurrek ekin diote ikasturteari. Ostegunean udal ordezkariak izan ziren bertan eta eskolako koordinatzaileekin batera, uda sasoiaren bertan egin diren hainbat hobekuntza azaldu zituzten. Guztira 30.000 euroko inbertsioa egin du udalak eta Maite Iglesias hezkuntza arloko zinegotziak eta Jesus Zaballos alkateak esan moduan, datozen urteetan gehiago inbertitzeko asmoa dago besteak beste, leiho berriak jarri nahi direlako.

Etxeko txikiak izan dira lehenak ikasturtea estreinatzen. Herriko 58 haurrek ostiralean izan zuten lehenengo eguna herriko Andre Joakina enea haurreskolan.

Guztira 76 haur hartzeko gaitasuna izan arren, dagoeneko matrikulazioa itxita dagoela adierazi zuten koordinatzaileak.

Honetan izena emateko aukera urtarilean, maiatzean eta ekainean zabaltzen da, "hauek dira matrikulazio garai ofizialak" azaldu zuen Susana Hernandez koordinatzaileak.

Hala ere, salbuespena, ekainaren 30etik aurrera jaiotakoak dira, hauek bai hilabete honetan aukera dute epez

kanpo izena emateko. Hernandezek esan bezala, 5 edo 8 ordu egon daitezke haurreskolan haurrak eta familiek ordaintzen duten hilabeteko kuota, errentaren arabera da.

Konponketak

Udal ordezkariak izan ziren atzo Andre Joakina enean eta bertan egin diren hainbat hobekuntza azaldu zituzten.

30.000 euroko aurrekontua izan dute eta honekin, lurra aldatu da, kortinak eta haize kortinak jarri dira, goiko patioan toldo bat ipini da haurrak eguzkitik babesteko, honetan ere erorketak ekiditeko zoru biguna jarri da, umeak kalera ez irteteko segurtasun atea eta usoen



Udaleko eta haurreskolako ordezkariak ostegunean izan ziren haurreskolako konponketak ikusten.

kontrako sistema jarri da "hauek sortzen zuten zikinzeria handia zelako".

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuen datozen urteetan honetan inbertsio gehiago egin beharko direla "leihoak aldatzeko daude eta eraikuntzaren alde zaharrena konpondu eta moldatu beharra dago".

Hala ere, denak pozik azaltzen ziren herriko txikiak dituzten instalazioekin "hobekuntza txiki hauek erabileran asko nabarituriko dira eta horregatik pozik gaude egindakoarekin" esan zuen Maite Iglesiasek.

58 haurrekin, 0-1 urte arteko hiru gela osatu dira eta 1-2 urte arteko lau gela.

Hauetan arituko dira ikasturte honetan lanean 12 hezitzaile.

Azken hau ere moldatzen joan daitekeela esan zuten izan ere, ume kopuruak gora egin ahala, ikasturtean zehar hezitzaile berriak gehituko lirake "beti ere getako ume kopuru ratioak betetze aldera".

Ondo ibili egitasmoa martxan

Iazko irailean abiatu zen 'Ondo ibili' egitasmoa herriko adinduek aktibo mantentzeko eta ikasturte honetan ere martxan jarraituko du.

Honen baitan astero-astero boluntario talde batek gidatuta, ibilbide ezberdinak egin ahal izan dituzte adineko bizilagunek. Biyak Bateko bazkideen artean izan dira bai boluntarioak ibilbideak gidatzeko baita erabiltzaileak ere eta bertan, jubilatuen egoitzan egin zen ostiralean bilera.

Honetan egitasmoan parte hartzen duten erakunde, elkarte eta erabiltzaileak bildu ziren ikasturteko balantzia egiteko eta ikasturte berriko egutegia zehazteko.

Honela, irailtik ekainera ostiralero 11:00etan aterako dira Okendo plazatik eta urriaren 2an, nagusien omenaldi astearren barruan, jaialdia izango dute.

Makinak

Bestalde, Karlos Altuna Kirol Zerbitzuko arduradunak gogo-

ratu zuenez, Kontzeju txiki plazan dauden makina ezberdinetan ariketa fisikoak modu egokian egin ditzaten erakusten dutela ere egitasmo honetan, baita eguraldi txarra eginez gero, arkupeetan etxean egin daitezkeen beste ariketa batzuk erakusten ditzutela ere. Hitzordua irailaren 15tik aurrera, asteartero goizeko 10:30ean da.

"Saio hauen bitartez, herri-tarrek beste egun batzuetan ere hauek erabiltzeko ohitura hartzea da," aipatu zuen bileran.



'Ongi ibili' egitasmoa aurrera eramaten duten erakunde, elkarte eta lagunak bileran.

Sustapena

Honetaz gain, hobetzeko dauden hainbat gauza eztabaidatu zituzten. Besteak beste, pertsona adinduen partehartzea nola sustatu.


Honen harira, egitasmoko ekintza bakoitzean lortzen

diren ziguilak batuz, erabiltzaileei sariak ematea erabaki zen. Esate baterako hamar ziguilu batuta kamiseta bat lortuko dute.

Hurrengo jarraipen bilera abenduaren 17an egingo da goizeko 11:00etan.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Nerea Eizagirre
txintzarri@txintzarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Jexux Artebe, Gorka Alvarez, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

HEZKUNTZA

Jantoki berria Garaikoetxean

Ikasleek ez dute bazkaltzeko eskolatik atera beharko

Landaberri Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak Pablo Garaikoetxea eraikinean eskola-jantoki berria estreinatuz hasiko du 2015-2016 ikasturtea. Instalazio berriak 150 haurrentzat edukiera du. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak udalerrri honetako hezkuntza-komunitate osoarekin lankidetzan estuan egin du lan proiektua gauzatzeko, eta 295.369,53 euro bideratu ditu obra egiteko.



Oraindik lanak guztiz amaitu gabe zeuden aurreko astean.

rekin eta hondakin gelarekin: 37m.

- Ikasleentzako komunak
- Sukaldeko langile eta laguntzaileentzako aldagelak eta komunak.

Hamarkadetan udalak Lasarte-Oriako eskola-jantokiko zerbitzuak kudeatu ondoren, Landaberri Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak bere gain hartu zuen eskolako jantokia zuzenean kudeatzeko zeregina, 2012-2013 ikasturtean.

Instalazioak, ordea, ikastetxeetatik kanpo zeuden. Horregatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Gipuzkoako Ordezkaritzaren bitartez, gurasoek eta ikastetxeko zuzendaritzak, aurreko udalbatzarekin, eskolan bertan kokatutako jantoki bat eraikitzea lehenetsi zuten, eskaera guztiari erantzuteko adina espazio izango zuena.

Hezkuntzatik azaldu dutenez, aurreko udalbatzak proiektua erredaktatzeko ardura hartu zuen, eta zimentua jartzeko lanak ere bere gain hartu zituen. Erakunde guztiak lankidetzan aritu dira eta proiektuaren jarraipena egin dute, jantokia ikasturte hasierarako prest egon dadin.

Eusko Jaurlaritzak uztailearen 2an esleitu zizkion lanak Construcciones Moyua S.L. eraikuntza-enpresari, eta uztailearen 21ean hasi ziren lanak.

Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, ohar bidez, eskerak eman nahi izan dizkie eragile guztiei, gurasoak, zuzendaritza eta aurreko udalbatza, "irtenbide onena bilatzen eta Lasarte-Oriako udalerrian askok eskatutako zerbitzu hori ezartzen emandako laguntzarengatik".

TXINTXARRI

Jantoki berria 2 eta 8 urte bitarteko ikasleei zuzendua Pablo Garaikoetxea eraikinean alboan eraiki da.

Zurezko instalazioa da eta erabilera anitzekoa: solairu bakarreko bolumen bakar bat, kanpo-isolamenduz estalitako zur ijeztuko xaflen bitartez eraikia, eta zurezko listoiez estalia. Bi isurkiko teilatua du eta azalera eraiki osoak 260,52 m hartu ditu.

Horietan, instalazio hauek jarri dira:

- 159,6 m -ko jantoki bat, 150 haur sartzeko edukierarekin (baita 300 ere, bi txandatan).
- Sukalondoa, janaritegia-

Eskoletan hainbat konponketa iragarri ditu udalak

Alkateak, hirigintza eta zerbitzu publikoetako zinegotziekin, bisita egin zuen herriko eskolen egoera zein zen bertatik-bertara eza-gutzeko.

"Oporaldi garaian bertan egin beharreko hobekuntzak ezagutu nahi izan ditugu" azpimarratu zuen Zaballosek.

Bisitaren ostean, jakitera eman zuten, hainbat gauza konpontzea erabaki zuten. Sasoeta eskolako fatxadetan hainbat konponketa egingo dira eta horretaz gain, udaleko bulego teknikoari eskatu zaio Zumaburuko eraikinaren fatxada eta kubieta birgaitzeko proiektua egitea.

Zaballosen esanetan, "udalak egin beharreko lehenetako inbertsioak" dira Zumaburu eta Sasoetako eraikinen fatxadetako konponketak baita Landabe-



Zumaburuko kanpoko aldea berritzeko proiektua landuko du udalak.

riko Garaikoetxea eraikineko leihoen aldaketa ere.

Hauek guztiak legegintza honetan zehar egingo direla aipatu du ohar bidez Jesus Zaballos alkateak.

Hobekuntza txikiak

Bestalde, Cespa S.L. enpresari eskoletako belarra mozteko

eskatu dio udalak eta brigadako langileek jolas lekuetako hainbat hobekuntza lan egingo dituzte.

Besteak beste, jolas lekuetan berrituta dauden murrak margotuko dira, porteriak eta saskiak berritu eta garbiketa orokorra egingo da.

MUSIKA

Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendari behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria.

Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, biyakbat@gmail.com helbide elektronikoa edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

JAIK

Basaundi eta Oriako Jai batzordearen eskertza

Oriako Karmengo jaiak eta Basaundiko San Inazioak antolatzen lagundu duten elkarte eta erakundeei eskerrak eman nahi dizkiete.

Basaundi eta Oriako jaiak antolatu dituen Jai Batzordea osatzen duten La Esperanza auzo elkarteko lagunek, Buruntz-Azpi elkarteak, Basaundi eta Oriako guraso eta gazte taldeek eskerrak eman nahi dizkiete Oriako Karmengo jaiak eta Basaundiko San Inazioak antolatzen lagundu duten elkarte eta erakunde guztiei: Lasarte-Oriako Udala, Oriatxiki taberna, Txoko taberna, La Route 33 kafetegia, Caja Rural de Navarra, Laboral Kutxa, I.Urruzola aroztetgia, Eroski-Urbil, Kutxabank, Maite liburu-denda, El Jardin jatetxea, Ges aseguruak eta Ttakun.

MATRIKULAZIOA

Musika eskolan izena emateko epea zabalik

Udal Musika eskolan plaza librean dituzten Musika Hizkuntza eta instrumentuetara matrikulatzeko epea irailaren 11 arte izango da zabalik.

Izena ematea astean zehar 09:00etatik 13:00etara Manuel Lekuonan egin beharko dela gogoratzen dute Musika eskolako lagunek.

MATRIKULAZIOA

Lasarte HHI-n matrikulatzeko aukera

Formazio arautua (DBH) eta zikloetarako sarbide frogak egiteko matrikulazio epea irailaren 3an zabalduko da eta 15era bitartean izango dute herritarrek aukera Lasarte HHI-n izena emateko.

Formazio ez arautuko ikastaro eta ikasgaietan interesa dutenek berriz, irailaren 9tik 15era izango dute izena emateko epea.

Izena emateko, astelehenetik ostegunera 11:00etatik 13:00etara eta ostiraletan 10:00etatik 12:00etara egin ahal izango da. Matrikulak zentroan bertan egingo dira, anbulatorioko eraikinean.

Edozein zalantza edo informazio eskuratzeko www.EpaLasarte.es edota 943 376 608 telefonora jo daiteke.

HEZKUNTZA

Usurbilgo Lanbide eskolan langabetuentzat ikastaroak

Usurbilgo Lanbide eskolak, langabetuentzat ikastaro ezberdinen eskaintza zabala aurkeztu du ikasturte berriarekin batera.

Ikastaro hauek Lanbide diruz laguntzen ditu, eta horrela izanda aukera dago honakoak ikasten hasteko: eraikinetako ur-erabilerearen eraginkortasuna, eguzki-instalazioen bideragarritasunari buruzko azterlanak, energiaren erabilera eraginkorra sustatzea, oinarriko mekanizazioa, eguzki-energia termikoko instalazioak muntatzeko eta mantentzeko oinarriko eragiketak, fabrikazio mekanikoko laguntza eragiketak, CNC fresa Heidenhain programazioa eta torno Fanuc eta Cam Gibbs programazioa eta azkenik, fabrikazio mekanikoko produktuen dokumentazio tekniko-3D diseinua CATIA.

Ikastaroak datozen hilabeteetan hasiko dira eta iraupen ezberdina izango dute. 40 eta 400 orduko ikastaroak dira guztiak.

Bakoitzaren inguruko informazioa eskuratzeko www.lhusurbil.eus webgunean edo 943 364 600 telefonoan egin behar da.

Eskaintza zabala emakumeen zentroan

Ikastaro eta ekintza berezi ugari izango dira udazken honetan

Emakumeen zentroak ikastaro ugari aurkeztu ditu hurrengo lauhilekorako. Ohiko ikastaroez gain, ekintza bereziak antolatu dira eta zentroan ez ezik, beste egoitza batzuetan ere egingo dira ikastaroak eta ekintzak.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroak sexuen arteko bizikidetzarako erreferentziako zerbitzua izatearen bidean lanean dihardu.

Herritarrek ikasteko, parte hartzeko, banaka eta taldeka ahalduntzeko eta elkartzeko toki izateko asmoz, lau hileko honetan adin desberdinetako herritar guztiei zuzenduta doako eta ordaindutako ikastaro eta ekintzak antolatu ditu.

Eskaintza

Jantzi-konponketak eta patrioiak, antzerkia, zumba, eskulanak, biodantza, kantua, ehoziak... gustu guztietarako eskaintza aurkezten du.

Ekintza hauek guztiak egoitzan bertan edo toki des-

berdinekin elkarlanean eramango dira aurrera. Esate baterako, kiroldegiarekin elkarlanean Running (korrika) egiten ikasteko emakumeentzako taldea jarriko da martxan ostegunetan 18:00etatik 19:00etara, ostiraletan zumba taldea izango da 12:30etik 13:30era eta pilates saioak 10:30etik 11:30era. KZ gunean, berriz, ofimatika eta Skype eta oinarriko Internet ikastaroak antolatu dira.

Ekintza bereziak

Honetaz gain, ikasturte hasiera honetan nabarmentzekoak dira "Emakumeok gure ekonomia kontrolatuz, eta ez alderantziz" tailerra, emakume migranteekin egingo den topaketa, Lasarte-Oriako Udalaren Beldur Barik II. lehiaketa eta honekin lotuta Gaztelekuan egingo den film laburren tailerra.



Emakumeen Zentroan ikastaro ugari eskaintzen dira eta horien artean, antzerki taldea dago.

Era berean, azaroan 17tik 27ra, Antonio Mercero erakusketa aretoan Haurralde fundazioa eta Malen Etxea elkartearen eskutik "Diruaren sexu ezkutua" erakusketa eta "Larremotzean" dokumentala ikusteko aukera izango da.

Matrikula

Parte-hartzea hainbat ikastaroretan doakoa den arren, besteak ordaindu beharko dira. Jarduera kopuruaren eta errol-daren arabera egingo da

ordainketa hau. Ikastaro edo ekintza hauetaz gozatzeko izena eman behar da, askotan plaza mugatuak direlako.

Hori dela eta, aurreko astean aurre-inskripzioa egin zen eta irailaren 9a asteazkena, 10a osteguna eta 11a ostiraletan behin betiko matrikula onartzeko egunak dituzte herritarrek.

Hala ere, ikastaro edo ekintzaren batean lekua egonez gero, egun hauetan ere eman ahalko da izena.

Emakumeen zentroan egin behar da matrikula goizko ordutegian, 9:30etatik 13:00etara eta arratsaldean berriz, 15:30etatik 19:30etara.

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago Udaleko web orrian, sexuen arteko bizikidetzarako emakumeen zentroan (Aralar plaza, 5), 943 36 39 58 telefonoan edo emakumezentroa@lasarte-oria.eus helbide elektronikoa eskuratu daiteke.

Bidegorri zati berria Atsobakarren

Azuztuan, Lasarte-Oriako bidegorri sarea osatzeko beste pauso bat eman zen eta Garaikoetxea eskola eta Urbil merkatalguneko biribilgunea batu ziren.

Obra honi esker, Lasarte-Oriak 6,2 km-z osatutako bidegorri udal sarea du eta Oria ibaiko ardatza, Atsobakarreraino iristen dena, amaitu da.

Lanak

Obra Construcciones Otegui y Gaztañaga S.L enpresari esleitu zitzaion 76.454

euroko aurrekontuarekin eta hau burutzeko epea 6 asteak izan da. Gipuzkoako Foru Aldunditik 32.856 euroko diru-laguntza izan du lanak.

Bide-tarte berria, 200 metro luzeakoa da, 2'20 metro zabalekoa eta noranzko bikoitzekoa. Espaloiaren paralelo doa, lehendik dagoen bidea aprobetxatuz.

Donostiarekin lotu

Udalak jakitera eman duenez, Donostia Mutrikurekin lotzen duen Gipuzkoako bizikleta-bideen sareko 2. ibilbidearekin

lotuko da. "Luzuriaga enpresarainoko 235 metroko bide-tarte geratzen da baina obra hori aurki egitekoa du Aldundiak".

Seinalizazioa hobetu

Eguzkiko eta Ekologistak Martxaneko kideen ustez, bidegorri-zati hau bide onean emandako urrats berri bat da.

Baina "Foru eta udal bidegorriak oraindik lotuta ez daudenez, txirindulariek ezin dute Lasarteko zentrorra edo zentrotik bidegorrira joan modu eroso eta garbian.



Atsobakar auzoan Urbileko rotondaraino luzatu da bidegorri sarea.

Arazo latza da Donostiatik datozen txirindularientzat, are gehiago ingurua ondo ezagutzen ez badute". Horregatik, elkarteen ustez udalak

eta Foru Aldundia seinalizazioa hobetzeko ados jartzea komeniko litzateke, "bidegorri-zatiak elkarren artean behar bezala lotu bitartean".

TXINTXARRI-k PUBLIZISTA BEHAR DU

Baloratuko da:

- Publizitate ikasketak
- Diseinuan aritua digitala/papera
- Salmenta eta harremanetarako erraztasuna izatea
- Ekimendun pertsona izatea
- Webguneak kudeatzeko tresnen ezagutza
- Sare sozialen ezagutza eta erabiltzailea
- Lasarte-Oria ondo ezagutzea

Curriculumak irailaren 13ra arte jasoko dira.

Helbideak:
txintxarri@txintxarri.info
Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

Eskaintzen da:

- 4 orduko kontratua

txintxarri 

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Abuztuan txokoetan primeran

Herriko jaiak izan dituzte hilabete osoan zehar gai nagusi

Uztaileko txokoak jendetsuenak izan arren, abuztuan ere euskaraz ederki pasatzeko aukera izan dute herriko gazte-
txoek. Guztira 3 eta 12 urte arteko 56 haur aritu dira abuz-
tuko txokoetan, tartean 6 saharar. Euren gaia Lasarte-Oriako
jaiak izan dira eta gurean egiten diren ia guztiak, hilabete
batean ospatu dituzte.

Eskolara buelta hain gertu dagoen honetan, atzean utzitako oporraldia gogoan izango dute herriko haur eta gazteek.

Azken urteetan bezala, Ttakunek udalaren laguntzarekin, abuztuan txokoaren egitasmoa izan du martxan.

Honetan, uztailean baino haur gutxiagok parte hartu arren, ez dute aspertzeko aukerarik izan. Izan ere, herriko festa guztiak errepasatu baitituzte hilabete zehar.

Lehenengo egunean txupina jaurti eta San Joan sua egin zuten. Euskal Jaiak egun batzuetako lanketa ekarri zien gaztetxoei eta hauetan kantu jira, herri kirolak edota erromeria egin zituzten bes-

teak beste. Zabaletako jaiak, San Pedroak, Karmenak, Santa Anako artisau azoka edota urte zaharra berriz ospatu zituzten eurekin aritu diren sei begiraleen laguntzarekin.

Jaialdia gurasoekin

Azken egunean ere jaiak hartu zuen protagonismoa.

Hau bai, berezia. Gurasoak gonbidatu zituzten jaialdira eta bi dantza eskaintzeaz gain, haurrek prestatutako pintxo goxoak dastatu zituzten denek. Gurasoak ere dantzara animatu ziren.

Ekintza hau esaterako, "uztailean egitea ia ezinezkoa da haur bolumena askoz handiagoa delako. Talde txikiak



Leitzarango jaitsiera egin zuten gaztetxoek baita zaldian ibili ere.



beste aukera batzuk eskaintzen ditu".

Horretaz gain, uztailekoek egin bezala, herriko atera dira eta hainbat irteera egin dituzte. Santueneara joan dira, Astigarragako igerilekura eta zaldian ibili dira. Aian gau bat pasa eta igerilekura ere joan ziren. Txikienek berriz, herriko igerilekuan, Zabaletan edota Monkey parkean izan dira.

Ederki pasa dute denek eta antolatzaileek ezin balantze positiboagoa egiten dute.



Sei begirale aritu dira gaztetxoekin ekintzaz-ekintza.



Irudi benetan bitxiak utzi zituen ostiraleko omenaldiak, goikoa bezalakoak: Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' pailazoari eskua ematen. Behean, Xumelako kideak, abesten.

Omenaldi beroa Porrotxi

Euskal Herri osoan barrena irribarreak eta maitasuna banatzen ibiltzen da Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' pailazo ezaguna. Pasa den ostiralean ordea, maitasun, irri eta txalo horiek denak jasotzea egokitu zitzaion. Omenaldi beroa eskaini zioten herriko hainbat eragilek Dorre parkearen (ahateen parkea izenez ere ezaguna) parean dagoen plazatxoan.

Toki hori ez dute kasualitatez aukeratu; koloretsua da oso plazatxo horretako pareta, duela hilabete gutxi margotutakoa. Herriko haur eta gaztetxoak aritu ziren horma horri kolorea ematen, Porrotx eta Marimotots pailazoaren laguntzarekin. 'Lasarte-Oria

biziberritzen' egitasmoaren baitako Margoketa Egunean margotu zuten murala.

Aitortza hunkigarria

Hunkigarria izan zen oso ostiral goizeko aitortza, bihotzetik eginikoa. 'Maite zaitut' abesti ezagunak ireki zuten omenaldia: Xumela abesbatzak jarri zuen musika eta Kukukako dantzariak koreografia, ikuskizun polita osatuz. Inguruan zebiltzan herritarrak ere animatu ziren eta denek batera abesten bukatu zuten.

Horren ostean, jendartetik Jon Maia eta Unai Muñoa bertsolariak irten ziren Porrotxen harridurarako. Esanahiz beteriko bertso bana abestu

zuten. Txalo zaparrada ozenak entzun ziren bukaeran.

Bertsoen ostean herriko pailazoaren errepertorioa primeran ezagutzen dutela erakutsi zuten, 'Epo i tai tai e' abestia interpretatuz. Dorre parke pareko plazatxora hurbildutako herritarrak ez ziren isilik geratu eta gogotik abestu eta dantzatu zuten.

Omenaldian zehar ezin izan zuen ia hitzik esan Porrotxek, ikaragarri hunkituta baitzegoen. Ekitaldia amaitutakoan ordea, eskerrak eman zizkien ekitaldira bertaratutako eragile eta norbanako guztiei. Ekitaldiari behar bezalako amaiera emateko, txalo zaparrada ozen eta luzea jaso zuen omenduak.

EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HELDUEN HEZKUNTZA

Educación de Personas Adultas

2015-2016 ikasturtea

Beko kalea bidea 1, 3. (Anbulategi gainean) • Lasarte-Oria
Tel.: 943 376443 / 943 366608 www.epalasarate.es

**Matrikula
epea
irekita**




LABURRAK.-

Xabier Elizegi hirugarren Manhattanen

Aurrean jartzen zaizkion erronkak gainditzen jarraitzen du Xabier Elizegi distantzia luzeko igerilari herritarrak. Abuztu hasieran MIMS Manhattan Island Marathon Swim proba entzutsuan hartu zuen parte. Ez hori bakarrik, lehenengo hiruren artean amaitzea lortu baitzuen 7 ordu eta 28 minutuko denbora eginez. Mathew Fernandez australiarra gailendu zen Manhattanen, 7 ordu eta 17 minututan geratuz kronometroa. Jaime Lomelin mexikarra sartu zen helmugara ondoren, 7 ordu eta 25 minutuko denborarekin. Elizegik osatu zuen podioa.

Maialen Chourraut, sasoi betean

Forman iritsiko da Maialen Chourraut herriko piraguista Londresko Munduko txapelketa-
ra. Abuztu hasieran Slalom titulu irabazi zuen Orthezko kanalean. Sei jardunaldiz osatutako ligaxkan gailendu zen; 4 urre irabazi zituen, zilar bat eta bronzetza bat. Bestalde, Pauko kanalean ere hartu zuen parte, Munduko Kopako azken proban. Bakarka zazpigarren postuan amaitu zuen, baina taldeko podiumeko lehen kaxoira igotzea lortu zuen, Irati Goikoetxea eta Marta Martinezekin batera.



Neguko ordutegia herriko kirol instalazioetan

Irailarekin batera iritsi da neguko ordutegia Lasarte-Oriako kirol instalazioetara, Kiroldegira eta Michelingo Kirol Gunera alegia. Asteazken 7:00etatik 22:30era irekiko dute Kiroldegia; 9:00etatik 20:00etara larunbatetan eta 9:00etatik 13:00etara igandetan.

Michelingo Kirol Guneari dagokionez, 15:30etik 22:30era egongo da zabalik astelehenetik ostiralera. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara erabili ahalko dute herritarrek eta igandetan 9:00etatik 13:00etara.

Raul Gomez Margallo herritarrak irabazi zuen Ergobiko VIII. Kros Herrikoia

Herriko korrikalariak Ergobiko VIII. Kros Herrikoian hartu zuen parte abuztuaren 23an, eta helmuga lehen postuan zeharkatzea lortu zuen. 32 minutu eta 56 segundo behar izan zituen 10 kilometroko ibilbidea osatzeko.

JUDO.-

LOKEko judokak, denboraldi berrirako prest

Udako oporraldia eta gero herriko kirol alor desberdinak motorrak berotzen hasten ari dira pixkanaka. Horien artean, LOKEko judokak. Gaur bertan hasiko dira denboraldi berria prestatzen Kiroldegiko tatamian.

7 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek astean bi egunetan entrenatuko dute. Astelehen eta ostiraletan, 18:30etik 19:30era arte.

12 urtetik gorako judoek berriaz, asteazkenetan ere entrenatuko dute, guztira astean hiru saio eginez. 19:30etik 20:30era astelehenetan, 18:30etik 20:30era asteazkenetan eta azkenik, 19:30etik 21:00etara ostiraletan.

“Iazko judoka kopuru berdintsua edukitzea espero dugu aurten ere, 60 neska-mutil inguru”, adierazi du Gorka Aristegi prestatzaileak. “Taldeak dauzkagu adin tarte guztietan, oso garrantzitsua da hori; denboraldi intentsoa izango da aurtengoa. Txapelketa askotan hartuko dugu parte”, azpimarratu du.

Klubaren helburuez ere hitz egin du Aristegik: “Pixkanaka maila igotzen joatea da gure helburua; txapelketetan emaitzak lortzea, gerrikoak eskuratzea... Hori bai, oso presente daukagu gure oinarriko baloreak ezin ditugula galdu: pertsonak hezten ditugu guk guztiaren gainetik”.

PILOTA.-

Arteaga eta Erasun garaile Antiguon

Denboraldi bikaina egiten ari da herriko pilotaria

Axier Arteaga herritarrak eta Jon Erasun zizurkildarrak txapela jantzi zuten Antiguoko txapelketan, abuztuaren 30ean. 10-22 hartu zituzten mendean Unai Laso nafarra eta Daniel Murgiondo azpeitiarra. Finaleko pilotari onenaren saria ere irabazi zuen Arteagak.



Erakustaldia eman zuen Axier Arteagak Antiguoko txapelketako finalean.

TXINTXARRI

Lehenengo zaleak goizeko zortzietan hasi ziren Antiguoko frontoira hurbiltzen, eta finala 11:00etan hasten zen. Zur eta lur geratu ginen pilotariak, anekdota hori kontatu zigutenean”. Axier Arteagaren hitzak dira, Antiguoko pilota txapelketa definitzeko ezin hobekak. Ikusmira handia sortzen du zaleen artean; abuztuaren 30ean bertara joan zirenak ez ziren damutu, kantxan aritu ziren lau pilotariek ikuskizun paregabea eskaini baitzuten, herriko aurrelari gazteak bereziki.

Markagailuari so eginez gero, batek baino gehiagok pentsa dezake mamirik gabeko partidua izan zela. 10-22 irabazi zuten Arteagak eta

Erasunek, baina ez zen erraza izan Arteagaren hitzetan: “1-6 aurreratu ginen markagailuan baina gero 5-7 hurbildu ziren. Pilota bizi xamarra zuten haiek, baina gurea berriro aterata eta min egiten hasi ginen. Errematera dezentetan sartu eta markagailuan ihes egin genuen”. 5-11 eta 8-18 joan ziren, 10-22 amaituz bukaeran. Senior kategorian jantzi du txapela aurten; jubenetakoa irabazi zuen 2013an, Erasunekin batera berriro ere.

Denboraldi bikaina

Pasa den sasoiaren sei txapel jantzi zituen Arteagak. Aurtengoa amaitu aurretik hainbat txapelketa jokatu behar ditu, baina jada berdindu ditu iazko emaitzak.

Antiguon eman du azken erakustaldia, tanto-sorta eder bat egin eta gero finaleko jokalaririk onenaren saria eskuratu. Lezoko Etxandi oroime-nezkoa ari da jokatzen orain bikotekide berarekin, Jon Erasunekin.

Etorkizuna

Herriko kaleetan bolo-bolo dabil azkenaldian galdera; ea Arteagak noiz egingo duen jauzi profesional mailara. Asegarce enpresarekin aurrekontratua sinatu zuen 2013an eta Albisu, Artola eta Olaizola II.ekin batera entrenatzen ari da. “Oso gustura” entrenatzen ari dela dio Arteagak eta ez duela “inolako presarik” profesionaletara jauzi egiteko. Urriaren hasiko da berriro Asegarcerekin entrenatzen.

ARETO-FUTBOLA.-

Txapelketan izena emateko azken egunak

Aurtengo areto-futbol txapelketan parte hartu nahi duten taldeek azkar ibili beharko dute, ostegun honetan itxiko baitu Ostadar SKTK izena emateko epea.

Txapelketaren XXXIII. edizioa izango da aurtengoa, eta beste behin herriko kirol ekitaldien artean erreferente izango da.

Lehiaketan parte hartzeko asmoa duen orok Ostadarren bulegora joan beharko du hilaren 10a baino lehen. 400 euro balio du izena emateko, eta beste 60 ere jarri beharko dituzte taldeek berme gisa.

Antolatzaileek jakinarazi dute 18 talde onartuko dituztela gehienez. Iaz 13 partaidetako multzoa osatu zuten, eta aurtengo txapelketan kopuru



13 talde hartu zuten parte iaz herriko areto-futbol txapelketan.

hori igotzea espero dutela adierazi dute.

Taldeen egutegiak

Ostadar Antonio Aroztegiak 3. Nazionalean lehiatuko du aurten ere. Urriaren 3an jokatuko du lehen neurketa, Kirolde-

gian eta Elorrioko Buskantza izango du aurrez aurre.

Cecilia Fruta Denda Ostadarrek berriaz, Gipuzkoako II. mailan jokatuko du aurten lehenengoz. Urriaren 3an hasiko dira horiek ere, Anoeta FTren aurka indarrak neurtuz.

Agenda

Larunbata, Okendo plaza, 19:30ean



Musika kalean

Kultur Kale Zikloaren baitako kontzertua izango da plazan. Arrasateko Mery May & The Muppets taldeak Indie estiloko musika ekarriko du gurera. Maria Fagan abeslariak gidatzen du taldea eta berarekin Mikel Azkargorta baxuan eta Aitor Etxagibel baterian arituko dira. Kanta propioak zein Marvin Gaye edo Amy Winehouse kantari ezagunen bertsoak eskainiko dituzte.

ulertzen' erakusketa izango da. Sarrera doan



Hernani

Musika

LEOKAKO LABADEROA

Ostirala, 22:00etan

Anariren kontzertua izango da Berdintasun Kontseiluak antolatuta.

Azoka

Larunbata

Mugikortasun Astearen baitan hainbat ekintza antolatu dira. Kasu honetan, 2. eskuko azoka berezia egingo da eta Bizikleta azoka izango da.

Usurbil

Literatura

SUTEGI

Asteazkena 16, 19:00etan

Jon Maiarekin solasean: Migrazioaz, kultur aniztasunaz... 'Riomundo' liburua aitzakia hartuta.

Lasarte-Oria

Guadalupeko Ama Birjinaren jaiak

JAIZKIBEL PLAZA

Ostirala 11

21:00etan, Bandera goratzea

21:00etan hasita, Extrema y Duro Rock Jaia. Honetan arituko dira, The Garax, The Zepo, The Northagirres, Bar Remigio taldeak eta DJ Avila

21:30ean, Afari herrikoia Extremadura etxean. Extremadurako kaldereta, ogia ardoa, postrea eta kafea



Larunbata 12

10:00etatik 17:00etara, Haurrentzako jolasak

10:00etatik 17:00etara, pintura lehiaketa 2KN okindegian hasiko da

12:00etan, Extremadurak Meza Extremadura etxean. Honetan Errenteriako 'Ecos de Monfragüe' kantari taldeak lagunduko du

14:00etan, Bazkari herrikoia

14:30ean, Bazkari herrikoia Oria-Txiki jatetxean

16:30ean, Museko Txapelketa irekia.

17:00etan, Futbolen txapelketa Buggy tabernan

17:00etan, Haur jolasetan irabazle suertatu direnen sari banaketa

18:00etan, 'Raices y Brotes' taldearen emanaldia

21:30ean, Bazkide eta lagunaren afaria herriko agintariekin batera.

00:00etan, Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin.

Igandea 13

01:00etan, Parrandan daudenentzat migak.

12:30ean, 'Zambra' taldearen emanaldia.

14:00etan, Bazkari herrikoia.

16:30ean, Tuteko txapelketa irekia

18:00etan, Bola joko txapelketa

20:00etan, Jaieen bukaera eta bandera jaitsiera.

Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

Gurea erakundearen 40. urteurrena dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna



Herritarren txokoa

Erketz Dantza eskolan izena emateko epea zabalik

5 eta 14 urte arteko haur eta gazteek aukera dute Erketz euskal dantza taldean izena emateko.

Honetarako egun batzuk zehaztu dituzte, irailaren 15, 16 edota 17an 18:00etatik 20:00etara Zumaburuko eskolan.

Informazio gehiagorako 635 746 028 telefonora dei daiteke.

Intza K.Eren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa irailaren 25ean itxi egingo da.

Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da.

Baldintza bezala, bikote bakoitzean Intzako bazkide bat egon beharko du.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Sarean

Euskal gastronomiaz gozatuz

Bazkal ordua dela eta ez dakizu zer egin? Jaitsi Errezetak aplikazioa eta euskal gastronomiako errezeta gozo bat sukaldatu ezazu.

Errezetak euskal gastronomiaz euskaraz gozatu nahi duten sukaldari profesional zein amateurri zuzendua dagoen aplikazioa da.

Errezetak lau kategoria ezberdinetan daude sailkatuta: Betiko errezetak, Bertoko produktuekin eginak, Edariak eta nola ez, Pintxoak; guztiak ere argazkiekin lagunduak.

Gainera, errezeta bakoitzak kostu, denbora, pertsona kopuru eta zailtasun maila propioak ditu; horrela, momentu bakoitzera ongi moldatu daitezkeen errezetak berehala kontsultatu eta aurkitzeko aukera eskainiz.

Horretaz gain, bilaketak errazteko asmoarekin, etiketa sistema bat ere erabil daiteke.

Android, iPhone eta iPad eragileentzat prestatutako aplikazioa dugu. Beraz, ez galdu aukera eta on egin!!



2. betaurrekoak
DOAN

erreflexuen aurkako
GRADUATUTAKO
zure mó-ak erosita

77€

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan





LASARTE-ORIA
Udal Euskaltegia

2015/2016 EUSKARA IKASTAROAK

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailetik ekainera
Matrikulaldia: Irailaren 1etik 15ra

Gainera, irailaren 1etik 15ra izena ematen baduzu, 10 kuotatan ordaintzeko aukera izango duzu.
Diru-laguntzak: % 85!!!. Galde ezazu!



943 361621
Bulego ordutegia: 09:00-19:15



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Beheko kale bidea 1 Tf: 943361621
e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2015-16



BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

Informazio gehiago
Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

ONDO iBiLi!

